

# NOLA DASTATU ILARGIA?

Testua eta irudiak: MICHAEL GREJNIEC

Itzulpena: KOLDO IZAGIRRE

Kartonez koadernatua. 19,5 x 29 zm. 36 orrialde. 16 €

IRAKURKETAREN PROGRAMA NAZIONALA (SEP México) - 2004  
IRAKURKETAREN PLAN NAZIONALA (PNL Portugal)

**Nola dastatu ilargia?** (euskaraz)

ISBN 978-84-95123-77-0. Gaur egungo klasikoak.

**¿A qué sabe la luna?** (gaztelania)

ISBN 978-84-8464-564-1. Clásicos contemporáneos.

**¿A qué sabe la luna?** (gaztelania)

ISBN 978-84-92608-84-3. Makakiños. De fácil lectura.

**A que sabe a lúa?** (galegoa)

ISBN 978-84-8464-625-9. Tras os montes.

**De què fa gust la lluna?** (katalana)

ISBN 978-84-8464-561-0. Clàssics contemporanis.

**A que sabe a Lua?** (portugesas)

ISBN 978-972-8781-09-5. Clássicos contemporâneos.

**A taste of the moon** (ingeleza)

ISBN 978-84-8464-746-1. Books for dreaming.

**Il sapore della luna** (italianoa)

ISBN 978-84-8464-431-6. Classici moderni.

*Aspaldi zebiltzan abereak peskizan ilargia nola dastatuko.*

*Geza ote zen, edo gazia? Zaitxo bat dastatu nahi zuten.*

*Gauetan zerura begira egoten ziren.*

*Tente jarrita lepoa luzatzen zuten, baita zango-besoak ere,*

*harrapatu nahirik...*


Nori ez zaio bururatu, noiz edo noiz, haginika egingo liokeela ilargiari? Horixe da ipuin honetako abereei bururatu zaiena. Zaitxo bat besterik ez zuten dastatu nahi, baina goi hartaraino luzatzen saiatzen ziren arren, ezin zuten ukitu.

Orduan, dortokak ideia zoragarri hauxe eduki zuen:

“Ez ote ginateke iritsiko denok elkar hartuta?”.

Lehen ikusian, ilargia bezain eskuragaitzak ematen duten asmoen istorioa da hau, baina lankidetzak errealitate bihurtzen dituena. Lankidetzaz honetan gisa guztietako abereak ageri dira: mitologiak dioenez munduari eusten dion dardoka, elefantea, jirafa, zebra, lehoia... Harik eta txikienetarikoa batek...

Eta horrela, alegiaren eta legendaren erdibidean, eskuzabaltasunaz, elkartasunaz eta batzen gaituzten ametsaz ari den irakaspen poetiko bat ematen dio ipuin honek irakurleari, irri eta ziri egiten duen ilargiaren umorearekin zipriztindua.



■ **Gala:** album irudiduna, haur literaturako klasiko garaikidea.

■ **Adin egokia:** 5 urtetik goiti.

■ **Erabiltzeko:** argitalpen berezia neurgailua; errepikazko egitura, abereek bideraturiko alegia; batasunaren indarrak, elkartasuna bezalako balioez gogoeta egiteko; abereaj, dastamena, distantziak.

■ **Liburuaren aurrerapena:**

[https://issuu.com/kalandraka.com/docs/nola-dastatu-ilargia-eusk\\_2615deb2f64398](https://issuu.com/kalandraka.com/docs/nola-dastatu-ilargia-eusk_2615deb2f64398)

## Michael Grejniec

«Nola dastatu ilargia?», Michael Grejniec poloniarra idatzia eta apaindua, biziki gomendagarria da irakurle hasiberrientzat. Errepikapenean eta pertsonaien metaketan dauka oinarritua egitura, herri literaturan egin ohi den moduan. Irakurtzeko ez ezik entzuteko ere oso ipuin egokia da, esalearen eta entzulearen arteko lotura erraza sortuz. Alderdi estetikoak, irudiek estilo xume eta beroa daukate, argitaratuak dauden couché papera lagungarri. Irudien ondoko testuak, azpi zurian dagoenez, oreka handia ematen dio liburuari, eragin artistikoa areagotuz.

